



La gallina Turuleca.



Vida perfecta.

Zinema bere handitasunean

SERGIO BASURKO

Dudarik gabe, Zinemaldiak egunotan Belodromoan paratzen duen pantaila erraldoia da zinema bere handitasunean gozatzeko aukerarik onena. Izan ere, aurtan, ondoko lanak aurkeztuko dira 2.500etik gora ikuslerentzat edukiera duen zinema-aretoan: Leticia Dolerak sortutako "Vida perfecta" telesail osoa, Víctor Monigote eta Eduardo Gondell zuzendarien *La gallina Turuleca* animazio-filma, eta *Sua - Irabazi arte* dokumentala, Realak Erreginaren kopa lortu aurreko asteari buruzkoa.

Larunbatean, hileren 21ean, 17:30ean, *La gallina Turuleca* animazio-filma proiektatuko da. Víctor Monigote eta Eduardo Gondell dira lan horren zuzendariak. Monigote marrazkilariak, besteak beste, *Cándida*, *Camino* eta *Mortadelo y Filemón: Misión salvar la Tierra* film storyboard-ak egin ditu. Gainera,

Mortadelo y Filemón contra Jimmy el Cachondo filmean zuzendaritza artistikoaz arduratuta Goya sarirako hautagaizta eskuratu zuen. Bestalde, Eduardo Gondell *Gaturro*, *Boogie el aceitoso* eta *Don Gato y su pandilla* animazio-film luzeetan aritu da zuzendaritza- eta ekoizpen-lanetan.

Hona hemen laburki argumentua: Turuleca oiloak itxura xelebrea du eta arrautzak erruteko zailtasunak ditu. Horregatik, gainontzeko oiloek burla

egiten diote. Baina egun batean, Isabel musika-irakasle ohiak bere etxaldera eramango du bizitzera, eta han bere talenturik handiena aurkituko du Turulecak: hitz egiteko gai izateaz gain, bikain abesten du!

Hurrengo egunean, berriz, arratsaldeko 17:00etan, Belodromoak "Vida perfecta" telesail osoaren estreinaldia jasoko du, aurretik zenbait film labur eta *Requisitos para una persona normal* film luzea egin dituen Leticia

Dolerak zuzendua. Lehen bi atalen emanaldiarekin, "Vida perfecta" lanak telesail onenaren saria eskuratu zuen Canneserries jaialdian. Halaber, interpretazio onenaren sari bereziak jaso zituzten Dolerak berak, Aixa Villagránek eta Celia Freijeirok, estandar sozialen arabera 'bizitza perfektua' lortu ezin dezaketen emakumeak interpretatzeagatik.

Tximinoen erresuma

Gainera, Zinemaldiak haurrei zuzendutako emanaldiak ere egiten ditu goizero Belodromoan. Ikastola eta ikastetxeekin hitzartutako programa baten bitartez, zinemaz gozatzeko aukera eskaintzen zaie ikasleei, euskaraz eta pantaila erraldoian.

Ildo horretatik jarraituz, aurtan, Donostia Zinemaldia, Donostia International Physics Center (DIPC) eta Euskadiko Filmatagia elkarlanean aritu dira hiriarren bereizgarrietako bi zartzeko: zinemarako zaletasuna eta zientzia-espezializazio handia. Akordio horren ondorioz, DIPCeko zientzialariek aurkeztuko dute ikastetxeentzat programatu den filma, *Tximinoen erresuma*, testuinguruan kokatzeko eta ikusleei zientziaren eta ekarpen zientifikoen aldeko irudia helarazteko. Zinemaldiak eta DIPCek elkarrekin aukeratu dute filma, eta euskarara bikoiztuta proiektatuko da.

Jamel Debbouze zuzendariaren *Tximinoen erresuma* filmeko protagonistan, Edouard, ez da besteak bezalako tximu bat: txikiagoa da, ile gutxiago du, eta ezin du gorputz-adarretako bat erabili. Baina bitxikeria horiek, Edouarden asmamenarekin batera, espeziearen eboluzioko lehen kate-maila direla esan daiteke. Gizaki eta animalien arteko abentura komiko bat da, *motion capture* (mugimendu-argazki) teknika modu txundigarrian erabiliz egina.

Azkenik, eta ohikoa den bezala, Zinemaldia itxiko duen ekitaldiaren emanaldia egingo da Belodromoan. Perlak saila itxiko duen filma (*The Climb*), Sail Ofiziala itxiko duena (*The Song of Names*) eta 67. edizio sari-banaketa proiektatuko dira 18:15etik aurrera.



Jo ta ke irabazi arte

Joan den maiatzaren 11n, Granadan finala jokatu eta Erreginaren Kopa irabazi zuen Realeko emakumeen taldeak. Jokalariak, talde teknikoak eta familia txuri-urdin osoak urduri, tentsioan eta ilusio handiz bizi zituzten final handiaren aurreko egunak. Aurreko egun horietan ikus-entzunezkoen arloko talde bat izan zen haiekin, eta Aurkene Arizak eta Mikel Fuentesek zuzendutako dokumental hau izan da emaitza. Guztiok dakigu partida nola amaitu zen. Aitzitik, dokumentalak bidea nolokoa izan zen erakutsiko digu.

Filmaketa taldeak finalaren aurreko egunak jokalariekin, entrenatzaileekin eta gertuko pertsonekin bizi izan zituen, ingurunean tentsioa eta urduritasuna nabari direlarik. Dokumentalean bulegoko lana, bideo eta fisio gelan egindako lana, entrenatzaileen hitzaldiak, hotela eta aldagela ikus daitezke. Baina gauza guztien gainetik, garaipen horri bide eman zioten goyoga eta giroa ber-bertatik sentituko ditugu. Emanaldia ostiralean izango da, irailaren 27an, arratsaldeko 19:30ean.

EMMA SUÁREZ

AKILAS KARAZISIS

CON: GAIZKA UGARTE · KATERINA ZAFIROPOULOU · KOSTAS PETROU · ANTONIS KAFETZOPOULOS
 ESCENA VOZ: LUIS MOYA REDRADO · MIGUEL ÁNGEL JIMÉNEZ (voz) VOZ: MIGUEL ÁNGEL JIMÉNEZ
 DIRECTOR DE FOTOGRAFÍA: GORKA GÓMEZ ANDREU · A.S.C. MONTAJE: IVÁN ALEDO · INVESTIDORES DE ARTS: STAVROS LOKALIDS · AZÚCAR: URUGOITIA
 DIRECTORA DE MONTAJE: DESPINA CIRIACU · MÚSICA: TONY TORRES · MÚSICA: PASCAL GAGNON · DIRECTOR DE CASTING: MARIS GAZDZ · TRABAJO DE ARTE: NIKOS KONSTANTINOU · ASISTENTE DE CÁMARA: ANTONIO ESTEBAN · MONTAJE: IMANOL GÓMEZ DE SECURA · EDICIÓN DE SONIDO: JOSU GONZÁLEZ
 PRODUCTORA: LUIS DE OZA · JAVIER ARSLAGA · LARA IZAGUIRE · CO-PRODUCTORES: GIORGOS KARNAVAS · KONSTANTINOS KONTOVRAKIS
 PRODUCTORA DE KINOSKOPION FILM PRODUCTIONS · GARIZA FILMS · SUBMINISTRADA POR: HERETIC
 COPIES: ARTOIS ETB · GOBIERNO VASCO · GREEK FILM CENTER · EURIMAGES · EUSKALTELE · COSMOTV · SKOME S.A.

UNA PELÍCULA DE
MIGUEL ÁNGEL JIMÉNEZ



Donostia Zinemaldia
Festival de San Sebastián
ETIO GALA

una ventana al mar